



GIZA PAPILOMA BIRUSAREN AURKAKO TXERTOARI BURUZKO INFORMAZIOA (GPB)

TXERTOIA HARTZEKO ARRAZOIAK:

Aurretik lesio bat izan duten emakumeek txerto horien prebentzio gaitasunaren onurak lor ditzakete, izan ere, frogatu ahal izan da:

- Umetokiko lepoko minbiziaren arriskua, minbizi aurreko lesio batengatik artatuak izan diren emakumeen artean, biztanleria orokorrarena baino handiagoa da datozen 10-20 urteetan
- Aukera handiagoak dituzte giza papilomaren beste birus infekzio bat erakartzeko GPB-gatik eta umetokiaren lepoan edo eta ugaltze-aparatuaren beste eremu batzuetan lesio berriak garatzeko.
- Emakumeek zenbat eta adin nagusiagoa izan, orduan eta GPB bidezko infekzioa ezabatzeko gaitasun murriztagoa dute, beraz birusak irauteko aukera handiagoa du eta ondorioz, arrisku handiagoa lesio kaltegarriak edo eta minbizia garatzeko denborak aurrera egiten duen heinean.
- Aurretiazko infekzioa GPB mota baten ondorioz, ez du zertan beti babes sortu behar beste infekzio batzuen aurrean papiloma birus mota beragatik, ondorioz, lesio berri bat garatzeko arriskua areagotzea suposatzen du horrek.

Txertoak ez dizu egungo lesioa osatuko. **Txertatzearen helburua beraz, giza papiloma birusagatik lesioak eta infekzio berrien arriskua murriztea da.** Azken datuek baieztatzen dute, aldezturik txertatutako emakumeen artean, tratamendu osteko lesio berrien arriskua murrizten dutela, eta horrek konizaziori erantsitako onura dakarkio.

Txertoak infekzioak prebeni dezakete bere osagaietan txertatutako GPB birusengatik (16, 18 eta beste batzuk) eta umetokiaren lepoko minbizi kasuen %70a sortzen dituztenak. Gainera, beste GPB birus batzuek partzialki babes gaitzakete, txertoan sartzen ez direnak, eta gutxi gora behera, umetokiaren lepoko beste %13 minbizi kasu eragiten dituztenak.

Zure medikuak aholkatuko dizu zein den unerik egokiena txertoa emateko, baina dirudienez, gomendagarriago da ahalik eta azkarren ematea.

Gardasil 9[®] bidezko txertaketa

VPH 16, 18, 31, 33, 45, 52 eta 58 birusen aurka babesten du, lepoko minbizia sortzeko gai direnak. Halaber, garatxo genitalak edo kondilomak sortzeko gai diren 6 eta 11 birusen aurka ere babesten du.

- **Dosi bat** ematen zaie **25 urte arteko pertsonari**, muskulu barruko injekzio gisa (finantzatuta eta txertaketa-egutegian).
- Muskulu barneko injekzio gisa ematen da **2 dositan**, gutxienez 6 hilabeteko tarte utzita, **26 urtetik aurrerakoentzat**. Dosi bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa 173 € da.

Txertoa 26 eta 45 urte bitartekoentzat finantzatzen da, hain zuzen ere, gizonekin sexu-harremanak dituzten gizonentzat eta prostituzio-egoeran daudenentzat.

Bada 3 txertoko jarraibide bat, finantzatua, patologia jakin batzuk dituztenentzat.

Iturria: Ginekologia eta obstetriziako Espainiako elkarte eta koloskopia eta Patologia zerbikalaren Espainiar elkarte
Euskadiko Txertoen Aholku Batzordea